



NORMA 4

ORDENANZA FISCAL PRECIO PUBLICO DE "UTILIZACIÓN DEL PATINÓDROMO" EN EL SERVICIO MUNICIPAL LAGUNAK.

FUNDAMENTO.

Artículo 1.- El precio objeto de la presente ordenanza se establece al amparo de lo dispuesto en los artículos correspondientes de la LF 2/1995 de 10 de marzo de las Haciendas Locales de Navarra.

CONCEPTO.

Artículo 2.- Se exigirán precios públicos por la utilización de los servicios del S. M. LAGUNAK para el desarrollo de las actividades de patinaje velocidad en sus instalaciones a todas las personas deportistas federadas provenientes de otros clubes navarros.

Se entiende de acuerdo a la presente ordenanza como servicios, los administrativos, uso del patinódromo del SM LAGUNAK para entrenamientos y otras instalaciones propias del Servicio Municipal LAGUNAK.

Podrán ser excluidos de la obligación de pago aquellos y aquellas deportistas de Clubes con los que el SM LAGUNAK hubiera acordado algún convenio escrito de utilización recíproca de las instalaciones deportivas, o por un convenio con la Federación Navarra o Española de Patinaje.

NORMAS DE GESTIÓN Y RECAUDACIÓN.

Artículo 3.- El importe del precio público se abonará por cuenta del club de procedencia a final de temporada, previa presentación de factura por el SM LAGUNAK, en función de las veces que sus patinadores hayan utilizado nuestras instalaciones, o por la compra de bonos de 10 accesos. Si el Club no fuera convenido o si la utilización del patinódromo fuera esporádica, se abonará el precio público en el momento de su utilización.

Artículo 4.- Cuando por causas no imputables al obligado-a al pago del precio, no se inicie la actividad deportiva propia de esta ordenanza procederá a la devolución del importe correspondiente.

TARIFAS

Artículo 5.- Las tarifas serán las que figuran en el anexo de la presente Ordenanza o las que en cada caso se fijen atendiendo a las características especiales de la actividad deportiva a realizar y quedarán entendidas con todos los impuestos y tasas a los que hubiera lugar.

4. ARAUA

LAGUNAK UDAL ZERBITZUAN "PATINODROMOA ERABILTZEKO" PREZIO PUBLIKOAREN ORDENANTZA FISKALA

OINARRIA

1. artikulua.- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean dagozkion artikuluetan xedatutakoaren babespean ezarri da ordenantza honetako prezioa.

KONTZEPTUA

2. artikulua.- Prezio publikoa ordainaraziko zaie Nafarroako beste klub batzuetako kirolari federatuei, Lagunak udal zerbitzuaren zerbitzuak erabiltzeagatik haren instalazioetan abiadura patinajeko jarduerak egiteko.

Ordenantza honen arabera, zerbitzuak dira administratiboak, Lagunak udal zerbitzuko patinodromoa entrenamenduetarako erabiltzea eta Lagunak udal zerbitzuaren beste instalazio batzuk baliatzea.

Kirolariak ordaintzetik salbuetsi ahal izanen dira, haien klubek Lagunak zerbitzuarekin idatzizko hitzarmena egina badute, elkarren kirol instalazioak erabiltzeko, edo Nafarroako edo Espainiako Patinaje Federazioarekin egindako hitzarmenen bat bada tarteko.

KUDEAKETARAKO eta DIRU-BILKETARAKO ARAUAK

3. artikulua.- Kirolariaren klubak ordainduko du prezio publikoa denboraldiaren amaieran, Lagunak udal zerbitzuak faktura aurkeztu ondoren, kontuan hartuta klub horretako patinatzaileek zenbat aldiz erabili dituzten Lagunaken instalazioak. Bigarren aukera da klub horrek 10 aldiz sartzeko abonamenduak erostea. Klubak Lagunakekin hitzarmenik ez badu edo patinodromoa noizean behin erabiltzen bada, erabiltzen den unean ordainduko da prezio publikoa.

4. artikulua.- Prezioa ordaintzera behartuta dagoenari egotzi ezin zaion arrazoiren bat dela medio, ordenantza honetako kirol jarduera hasterik ez badago, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.

TARIFAK

5. artikulua.- Ordenantza honen eranskinean ageri direnak izanen dira tarifak, edo, bestela, kasu bakoitzean ezarriko dira, kontuan izanda egitekoa den jardueraren ezaugarri bereziak, eta ulertuko da barne direla aplikatu behar diren zerga eta tasa guztiak.

